

2021 PRO GRA MA

Urtarriletik
uztailera

DONOSTIAKO
EMAKUMEEN
ETXEA



Okendo kalea , 9

AURKEZPENA

Emakumeen Etxea da gune bat, non emakume ugari eta askotarikoak biltzen garen, prestakuntza jasotzeko eta gogoeta nahiz ekintzak egiteko.

Bertan, zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskaintzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizimodua hobetzeko, eta berdintasun handiagoko gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua eratu da Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan; hain zuzen, etxeko jarduerak kudeatzeko eta dinamizatzeko helburuz. Denbora igaro ahala, Elkarteko bazkide aktiboenak batzordeak eta lantaldeak sortzen joan dira, haien interesen arabera. Batzorde bakoitzak bere helburuak ditu, eta bazkideek batzorde guztietan har dezakete parte.

Helbidea

Okendo 9, 20004 Donostia

Telefonoa

943 48 34 70

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00

E-mail

info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus

Web:

donostiakoemakumeenetxea.com



KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK:

- Ikastaroetan **Izen ematea** urtarrilaren 11tik 24ra arte egingo da. Betetzen ez diren ikastaroen izen-emate epea, ikastaroa hasi arte luzatuko da.
- Izen-ematea Internet bidez egingo da honako web orrialdeetan:
www.donostiakoemakumeenetxea.com
www.donostia.eus/berdintasuna
Laguntza behar baduzu izena emateko, gerturatu zaitez Emakumeen Etxera.
- Ikastaro eta zerbitzu guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara edo tailerretara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu, edo ikastaro berrietan parte hartu, urtebeteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, Etxeko koordinatzailei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak -justifikatu gabe-, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.
- Egoeraren arabera jarduera eta zerbitzu guztiak presentzialak edo on line izan daitezke.

FORMAKUNTZARAKO BLOKEAK

FEMINISMOA PENTSATZEN ETA PRAKTIKATZEN.

FEMINISMOA ETA PLAZERA.

DEKOLONIALITATEA ETA FEMINISMOAK.

FILOSOFIAREN ETA ZIENTZIAREN INGURUKO IRAKURKETA
BERRIAK.

Gai zehatzak lantzeko gune trinkoak,
non diskurtsoak sortzen ditugun eta
elkar hartzen dugun, formakuntzen
bitartez elkar ahalduntzeko xedea-
rekin.



BIZIRAUTEKO FEMINISMOA: TRESNA FEMINISTAK PANDEMIA OSTERAKO

(7 saio)

Formatzailea: Irantzu Varela

Eguna: asteartea

Ordua: 18:00 - 20:00

Hasiera: otsailak 16

Amaiera: martxoak 30

Hizkuntza: gaztelania

Tailer honetan proposamen feministak zainketa krisiaren eta sistemaren kolapsoaren testuinguruan kokatuko ditugu, pandemiak egoera horretan jarri baikaitu. Horretarako, feminismoaren azken mendeko proposamenak ezagutuko ditugu, proposamen teorikoetatik hasi eta praktika paradigmatico zein abangoar-distenetaraino. Ideia da feminismora bizipenetatik iristen direnak proposamen feministak teorikoetara hurbiltzea, proposamen konplexuenak eta abstraktuenak feminismoan interesa duten guztien eskura jarriko dituen mezu bat eraikiz.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Feminismoa pentsatzen eta praktikatzeko

GAUR EGUNGO EZTABAIDAZ HITZ EGIN DEZAGUN: FEMINISMOAREN SUBJEKTU POLITIKOAZ

(3 saio)

Formatzailea: Carmen Diez

Eguna: osteguna

Ordua: 19:00 - 20:30

Hasiera: otsailak 4

Amaiera: otsailak 25

Hizkuntza: elebiduna



Mugimendu sozial guztiek subjektu politiko bat behar dute. Mugimendu feministaren subjektu politikoa beti aritu da handitzen, baina feminismoaren zati batek gaur egungo proposamen batzuei kezkatik begiratzeko die, hain zuzen "emakumeak" garen subjektu politiko hori desegin lezaketen proposamenei. Beste aldetik, fundamentalismoek hamarkadak daramatzate "genero ideologia"-ren aurka borrokatzen eta biologia gure patua dela aldarrikatzen. Proposatzen ditugun saio hauetan hitz egiteko asko dago.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

ZAHARTZAROA EZ OTE DA GAI FEMINISTA BAT?

(4 saio)

Formatzailea: Mari Luz Esteban

Eguna: osteguna

Ordua: 19:00 - 20:30

Hasiera: apirilak 29

Amaiera: maiatzak 20

Hizkuntza: elebiduna

Feminismo euskaldunaren sektore handi bat zahartzen ari da baina ia ez gara hausnartzen ari, ez behitzat mugimendu bezala, indibidualki zein kolektiboki honek dakarrenaz. Saio hauetan zahartzeko esperientziaren inguruko hausnarketa kolektiboa egin nahi dugu eta baita esperientziarako nahiz praktika politikarako ekar ditzaken aldaketez eta alternatibez ere.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

Feminismoa pentsatzen eta praktikatzen

GAKO FEMINISTAK PLAZERA POLITIZATZEKO

(5 saio)

Formatzailea: Laura Muelas


Eguna: osteguna

Ordua: 18:30 - 20:30

Hasiera: martxoak 4

Amaiera: apirilak 15

Hizkuntza: elebiduna



Lantegi honetan espazio bat sortuko dugu feminismoaren eta plazeraren arteko harremana eztabaidatzeko, hausnartzeko eta aztertzeko. Plazera aldarrikapen eta borroka feministen partetzat jotzen dugu, baita eraldaketa sozialerako elementu nagusitzat ere. Plazera genero, kultura eta gizarte sisteman nola txertatzen den ikusiko dugu; horretarako, ibilbide teorikoa zein praktikoa burutuko dugu, hainbat euskarrien bidez, hala nola produktu kulturalak, zinema, musika, praktika artistikoak, testuak eta beste material batzuk.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

Feminismoa eta plazera

LABORATEGI FEMINISTA: ESKUZ ETA BAIMENIK GABE

(7 saio)

Formatzailea: Cony Carranza,
Tania Cañas

Eguna: osteguna

Ordua: 18:30-20:30

Hasiera: otsailak 2

Amaiera: uztailak 6

Hizkuntza: gaztelania

Pentsamendu dekolonial eta antiarrazis-
taren inguruko bidaia teoriko praktikoa,
pribilegioak berrikusiz eta hegemonikoa
deseraikiz, muga eta desberdintasune-
tik aliantza feministak sortzeko. Geure
buruak deskolonizatzea, gure marko teo-
rikoak eta praktikak berrikustea prozesu
bat dela uste dugu eta elkarrekin has-
tera gonbidatzen zaituztegu. Eskuz eta
pixkanaka! Bakoitzaren estiloa jarraituz,
prosaz edo poesiaz berridatziz... eta hete-
ropatriarkatu kapitalista eta arrazistaren
“baimenik gabe”; baina borroka kolektibo
bihurtzen diren norbanako eraldaketek
ematen duten indarrarekin.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

Dekolonialitatea eta feminismoak

AHANZTURA KONJURATZEN: EMAKUME FILOSOFOEN LEGATUA

(10 saio)

Formatzailea: Marisa Hurtado

Eguna: astelehena

Ordua: 19:00 - 20:30

Hasiera: otsailak 1

Amaiera: maiatzak 31

Hizkuntza: gaztelania

Filosofia emakumeen aurkako inguru-
nea ez izateko ahalegina egitea da beste
erronka handietako bat; horretarako, gure
aurrekoak ikusaraziko ditugu eta historian
eduki behar duten lekua emango diegu.
Hau da tailerraren asmoa: gure aurrekari
izandako pentsalariak argitara ateratzea,
eta beraiegandik ikastea, nahiz eta gure
hautapena txikia den.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

Filosofiaren eta zientziaren inguruko
irakurketa berriak

ZIENTZIA ONA: EZINEZKOA EMAKUMERIK GABE

(5 saio)

Formatzailea: Marta Macho-Stadler

Eguna: astelehena

Ordua: 19:00-20:30

Hasiera: ekainak 7

Amaiera: uztailak 5

Hizkuntza: gaztelania



Zientzia giza jarduera bat da; eta, beraz, ez dago aurreiritzietatik libre. Zientziako aktoreei buruzko estereotipoek, emakumezko erreferente faltak eta kultura patriarkalak emakume asko bultzatzen dituzte zientzia etorkizuneko aukera bezala baztertzeraz. Benetan garrantziatsua al da emakume gehiagok lan egitea eta lidergoa izatea arlo zientifiko teknologikoetan?

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

Filosofiaren eta zientziaren inguruko irakurketa berriak

AUTODEFENTSA IKASTAROAK

Ikasi nahi duzu eraso matxistei aurre egiten?

¿Kalean aske sentitu nahi duzu?

Uste duzu ezingo zarela defendatu?

GAZTELANIAZ

Otsailan (12 ordu)

Ostirala 26	Larunbata 27
16:00 - 20:00	10:00 - 14:00
	15:00 - 19:00

Ekainan (12 ordu)

Ostirala 4	Larunbata 5
16:00 - 20:00	10:00 - 14:00
	15:00 - 19:00

Formatzailea: Isa Bernal

EUSKARAZ

Martxoan (8 ordu)

Ekainan (8 ordu)

Larunbata 20	Larunbata 19
10:00 - 20:00	10:00 - 20:00
15:00 - 19:00	15:00 - 19:00

Formatzailea: Emagin



Antolatzailea: Berdintasun Saila

Indarkeria

ELKARGUNEAK

Talde hauek ikasturte osoan zehar elkartzen dira eta gehienak irekiak mantentzen dira parte hatzaile berrientzat.



INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

Formatzailea: Beatriz Zalakain

Eguna: ostegua

Ordua: 16:30 - 18:30

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania



Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean elkartzeko gunea.

Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askatzeko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte haien artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko: zer gertatzen zaien jakin, pozarekin konektatu, nork bere gorputza zaindu, desirakin duten harremana eza-gutu eta taldearen laguntza jaso.

AHOLKULARITZA, LAGUNTZA TALDEA

Formatzailea: Maider Andonegi

Eguna: asteartea, hamabostero

Ordua: 14:30 -16:00

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania

Talde gunea bat, bakarka nahiz gizarte aldetik egoera bereziki zaurgarrian dauden emakumeentzat. Gogoeta egiteko gonbita egiten digun gunea, gure ustez zapaldu egiten gaituen hori komunean jarrita. Eta talde prozesu bat, nortasun tradizional haragitu hori eraldatu eta jaso ditugun kultura-sinesmen, jarrera eta ohituren baliozkotasunari aurre egiteko modua ematen duena, jaso ditugun nortasun eta sinesmen horiek ez baitigute uzten gure erabakien jabe izan eta bititza autonomo eta indarkeriarik gabeari aurre egiten.



DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZE TALDEA

Formatzailea: Rosa Ugalde
Urbistondo, ELKARTU

Eguna: ostirala

Ordua: 11:30 - 13:30

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna



Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.

Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahalduntzea lantzeko bidean.

Antolatzailea: Berdintasun Saila

JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Formatzailea: Beatriz Zalakain

Eguna: asteartea

Ordua: 16:00 - 18:00

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta sozializatzen dituzte banakakoen eta taldearen lorpenak. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna nahiz baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagutza ekintzetan parte hartzen dute.



Antolatzailea: Kultur Aniztasun Saila



MATRAKA GUNEAK

Jarraituko dute, baina oraingoz itxita daude, eta datorren ikasturtean, 2021eko irailean, hasiko dira berriz martxan.

IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

AFEKTU-GOSEAK EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEAN

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Antolatzailea: Berdintasun Saila

PARLERAS I

Formatzailea: Mertxe Tranche

Antolatzailea: Berdintasun Saila

PARLERAS II

Formatzailea: Mertxe Tranche

Antolatzailea: Berdintasun Saila

VENTANERAS

Formatzailea: Mertxe Tranche

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

CLOWN

Formatzailea: Beatriz Egizabal

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

BATUKADA FEMINISTA

Formatzaileak: Ainara Sarasketa,
Arantxa Vicedo

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

ANTZERKI LABORATEGI FEMINISTA

Formatzailea: Aitziber Eguskiza

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

TALDEKO KANTU GUNEA

Formatzailea: Bettina Aragon

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

XAKE

Formatzaileak: Elisabeth Aguirre,
Leire Cruz

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Arreta eta Bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako baliabideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera
10:00 – 21:00
Hitzordurik gabe

Etxeko Langileentzako Aholkularitza

Honako gaien inguruko aholkularitza: eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak...

Egilea:
Ana Lopez eta Juana Aranguren

Astelehena
16:30 - 18:30
Hitzorduarekin

Aholkularitza Juridikoa eta Gizarte Esku-Hartzea

Espetxe eta zigor zuzenbidea.
Atzerritartasuna.
Lanerako zuzenbidea.
Genero indarkeria.
Hirugarren adina: erretiroa, pentsioa, alar-guntasuna... Tramiteak egiteko laguntza.

Egilea:
Arrats Elkarte

Asteazkena
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Astean Zehar.
Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 - 21:00

ZERBITZUAK

Hitzordua eskatu ahal izango duzue telefono honetan

 **943 48 34 70**

Laguntza Psikologikoa

Aholkularitza, prebentzioa eta ahal-duntzea helburutzat izanik eta metodo-logia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Egilea:
Maite Santamaria

Asteazkena
10:00 - 13:00
Hitzorduekin

Lege Aholkularitza

Famili zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerriartasuna, genero indarkeria.

Egilea:
Emakume Bananduen
Elkartea

Asteazkena
19:00 - 21:00
Hitzorduekin

Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
LAHIA 3.0

Astelehena
17:00 - 20:00
Hitzorduekin

Sare sozialetan:



@lahia3.0

Emaila:
biluzikzerbitzua@hotmail.com

Gizarte Aholkularitza

Gizarte laguntzei buruzko informazioa behar duzu?
Etxebizitza? Enplegua edo formazioa?

Egilea:
Rosa Ugalde

Asteartea
16:00 - 18:00
Hitzorduekin

“Iguálate” Ikasketen Homologazioa

Atzerrian egindako ikasketen tituloak balioztatzeko aholkularitza eta laguntza.

Egilea:
Bidez Bide

Osteguna
10:00 - 12:00
Hitzorduekin

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad



Asociación Casa de las Mujeres